



Bertsozale Elkartearen Berripapera

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2025eko MAIATZA - 263. zenbakia

## Ekainaren 14an egingo da Euskal Herriko Eskolartekoa, Arantzan

Goizeko 11:30ean izango da saioa eta ondoren luntxa izango da bertaratzen diren guztientzat.

Urtero bezala, ekainean egingo da Euskal Herriko Eskolartekoa. Aurtengoa XXXVII. edizioa izango da eta, iaz bezala, Nafarroan jokatu da finala, Arantzan. Aurten goizez izango da saioa, 11:30ean.

Herrialde bakoitzean Eskolartekoak jokatzeko ari dira Euskal Herriko iritsi orduko. Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako finalistak prest daude; Bizkaiko finala maiatzaren 31n izango da, lurretan, eta Gazte Xilabaren finala

ekainaren 7an, Itsasun. Denak amaitzean jakingo dugu zeintzuk izango diren Euskal Herriko Eskolartekoan kantatuko duten finalistak.

### Finala, goizez

Iaz ez bezala, aurten goizez egingo da Eskolartekoa Arantzako frontoian. Saioa amaitutakoan mokadua eskainiko da

eta sariak ere zozkatuko dira. Saiorako sarrera doakoa izango da.

Bertsozale Elkarteak eta Ikastolen Elkarteak elkarlanean antolatzen dugu gazteen bat-bateko bertsolari txapelketa, eta aurten ere Arantzako Udaren laguntza izango du Euskal Herriko Eskolartekoak. Bertsozaletzea eta gazteei jendaurrean kantuan hasteko aukera ematea du helburu egitasmoak.



UNAI  
MENDIZABAL JAUREGI

IBARRA. 2025-V-09

Doinua: Oihan beltzean zoinen eder den

Euskera izan ez dadin putre  
beltzenen arteko txori  
elkar mugituz egin dezagun  
gure eskutan den hori  
gaurkoagatik gure esker ta  
besarkada haundi bat tori  
txapa hartuta txapa emanez  
Euskaraldi on danori! (bis)

Arantzan jokatu da aurten ere Euskal Herriko Eskolartekoa. //XDZ.

F.C.BAIMEA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredakzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinu-maketazioa: Dixidu Diseinu Grafikoa / Argazkiak: Xepelar Dokumentazio Zentrua  
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

# Martxan daude Nafarroako Bertsolari Txapelketako sailkatze saioak

Iruñeko Arrotxapea auzoan egin da lehen saioa eta Jauntsaratsen egingo da bigarrena, maiatzaren 30ean. 12 bertsolarik hartuko dute parte, aurreko txapelketan aritu ez zirenak. Horietatik sei sailkatuko dira urrian hasiko den txapelketara.

Urriaren 4an abiatuko da 2025eko Nafarroako Bertsolari Txapelketa, azaroaren 29ra bitarte luzatuko dena. Horren aurretik, ordea, sei lagunez osatutako bi sailkatze saio jokatu dira txapelketan parte hartuko duten bertsolarien zerrenda osatzeko. Maiatzaren 23an egin da lehenen Iruñean -Xabi Maia izan da nagusi-, eta 30ean Jauntsaratsen jokatu da bigarrena.

Txapelketako araudiaren arabera, azken ekitaldian -2023koan- parte hartu zuten bertsolariek bakarrik dute bermatuta txapelketarako txartela. Sekula parte hartu ez dutenek, edota 2023koa baino lehenagoko edizioen batean parte hartutakoek, sailkatze fasea jokatu beharko dute txapelketara sailkatzeko.

Saioak osatzeko, ordea, azken txapelketako azken sailkatuak ere batu zaizkie horiei guztiei. Gauzak horrela, 18 bertsolari dira dagoeneko urrian hasiko den txapelketarako sailkatuta daudenak, eta 12 aurrekanporaketak jokatu dituztenak. Azken horietatik sei lortuko dute sailkapen txartela -saioetako irabazleak, eta puntuazioaren arabera lehen lauak-, eta, beraz, 24 bertsolarirekin abiatuko da txapelketa urrian.

Sailkatze saioetarako sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian eskuratu daitezke (bost eurotan arruntak, lau eurotan bazkideenak, eta hiru eurotan 18 urtetik beherakoenak). Iruñeko eta Basaburuko Udalak egitasmoaren laguntzaile dira.



Xabi Maiak irabazi du Iruñeko saioa eta zuzenean sailkatu da txapelketara. //XDZ

## Bertso udalekuetako hezitzaileek prestaketa asteburua egin dute

Lau txandak prestatu eta gatazkei buruzko lan saioa ere egin dute Astigarragan elkartu diren 30 gazteek.

Oraindik denboratxoa falta bada ere, udarako dena prest izateko elkartu dira Bertso Udalekuetako hezitzaileak Astigarragako Santiagomendi aterpean. Maiatzaren 9tik 10era bitartean egon dira udalekuetako lau txandatan arituko diren begiraleak elkarrekin, 30 lagun guztira, eta talde giro ederra izan dute.

Asteburu horren helburuak hezitzaileek elkar ezagutzea eta

harremanak sendotzea, Bertso Udalekuen helburuak eta ildo pedagogikoa partekatzea eta txanda bakoitzeko plangintza orokorrak egitea dira. Aurtan, gatazken gaiari buruzko lan-saioa ere egin dute.

Hezitzaile taldea martxan da, beraz, udarako prestaketetan. Uztailean Zuhatzan, Sarrian, Uitzin eta Bidarrain elkartuko dira 160 ume eta gazte bertsozale, 35 hezitzaileekin batera.

# Gaizka Azkarate: "Bertsolaritza telebistan modu jarraituan egotea onuragarria da inguratzen duen guztiarentzat"

**Bukatu da Hitzetik Hortzera programaren aurtengo denboraldia, baina proiektuak ez du etenik. Bertsozale Elkartearen bozgoragailu garrantzitsuenetakoa den saioak emisioan jarraituko du irailetik aurrera. Orain arteko ibilbideaz eta aurtengoak emandako uztaz aritu gara Gaizka Azkarate Uzin (1991, Soraluze) saioko zuzendari eta elkarteko hedapen eragilearekin.**

1989-1990 egin zen Hitzetik Hortzera saioaren lehen denboraldia. Ordutik, bertsogintza aldatu da, baita telebista eta ikus-entzunezkoen esparrua ere.

Batak zein besteak aldaketa handiak izan dituzte eta Hitzetik Hortzera beti saiatu izan da unean-unean bogan egon diren gaiak eta moldeak lantzen. Nik azken urteez hitz egin dezaket, eta uste dut tarte horretan telebistako lurzoruak behar duenera egokitzen asmatu duela programak. 2017. urtean hasi ginen bestelako sorkuntza esparruekin uztartuz emankizuna janzten. Adibidez, ilustrazioek leku garrantzitsua hartu zuten kontakizunean.

Hitzetik Hortzeraren ehuneko handiena bertsoek osatzen dute; hala ere, arreta handiz begiratu izan diogu manikiaren jantziari. Gogoan dut denboraldi oso batean maleta batekin bueltara ibili ginela, bertan askotariko istorioak bilduz.

Fokua egungo programan jarritz gero, egin dugun hautuetako bat umore kodea txertatzearena izan da. Ez da lehen aldiz, inondik ere, programa umorez aurkezten dela; baina esango nuke egungo umore kutsuarekin asmatu dugula publikoa saiora lotzen. Bertsoaldiak aurkezteko esketxak egin ditugu; eta horrek, esango nuke, telebista kontsumitzeko dauden ohitura berriei bat egin duela.

**Antxoka Agirrek bertsolaritzaren azken 200 urtetako eragiletzaren inguruko tesian, bertsolaritza garaian garaiko euskarri teknologikoetara egokitzen aritu dela dio. Etengabeko egokitzapena da zuena...**

Erabatekoa da egokitu beharra, ahaztu gabe lehengaia bertsoak direla. Zentzu horretan aipatu nahiko nuke iazko denboraldian bertso sorta musikatuak musika urbano eta modernoarekin uztartzeko egindako ahalegina. Sarri musikatu dira bertsoak Hitzetik Hortzeran; hala ere, inoiz ez sintetizadoreak, elektronika eta zuzeneko musika uztartuta. Oso pozik gaude Manex Pagola musikariak eta bertsolariek egin duten lanarekin. Denboraldi berrian ere izango ditugu era horretako pieza gehiago.

Eta egokitzapen horretan, nolabait asmatu da. Zeren audientzia datuak ez ezik, saioak berak eskaintzen dituen zifrak ez dira makalak: guztira 32 saio, 10 bertso musikatu, 32 elkarriketa, 60 bertso saio baino gehiago, 99 bertsolari...

Atalez-atal zerrendari tira egiten jarritz gero konturatzen gara luzea dela denboraldi bakoitzak uzten duen itzala. Hori pozgarria da, noski, baina ardura handia ere suposatzen du lan taldearentzat. Bertso saioak, elkarriketatuak edota atalak aukeratu eta landu aurretik ondo gogoetatzen ditugu.

Esan bezala, denboraldi osoaren marrazkia egiten dugunean konturatzen gara gure egitekoak duen dimentsioaz. Irailean ekingo diogu denboraldi berriari eta aurreratu dezakegu bi programa gehiago izango dituela: 34 guztira.

**Hedapena gakoa izan da bertsolaritzaren transmisioan, eta, ondorioz, baita Hitzetik Hortzera ere. Bi saio gehiago izateak uste baino eragin handiagoa du, ezta?**

Programak audientzia datu duinak ematen ditu eta EITB MEDIAN positiboki baloratu dute azken urteotan Bertsozale Elkartetik egiten ari garen lana. Horren adierazle da azken bi urteetan Hitzetik Hortzeraren denboraldia zortzi programa gehiagok osatuko dutela. Denboraldiaren luzapenak aukera ematen digu bertso eduki gehiago ekoizteko; alegia, bertso saioen grabaketak, bertso munduko elkarriketatuak edota bertsoarekin harreman zuzena duten eduki gehigarriak lantzeko tarte gehiago daukagula horrela.

Esandako guztiagatik, Hitzetik Hortzeraren denboraldia irailetik maiatzera izateak izugarrizko garrantzia du. Bertsolaritza telebistan modu jarraituan egotea onuragarria da inguratzen duen guztiarentzat. Lan taldearen jomuga da bertsolaritzaren ekosisteman kokatzen diren eremu gehienetara iristea. Kontziente gara askotariko bertsolaritzak daudela eta paradigma horretan guztientzat lekua duen espazioa izan nahi luke Hitzetik Hortzerak.



Hitzetik Hortzerako lantaldea: Haritz Arrizabalaga, Irene Tapia, Gaizka Azkarate eta Mirari Martiarena. //XDZ



## Puntua jarrita

EGOITZ GOROSTERRAZU ELIZAGOIEN

Galdera ona Irati, erantzuna bi hitzetan ematen ahalko nizuke: Gauza aunitz.

Baino gehiagotan emango dizut.

Lehenik, mundu eder bat ezagutu izana. Horren errudun Bittor eta ama direla uste dut; batari entzutera joaten nintzelako eta maitemintzen hor hasi nintzelako, eta bertzea izan zelako lehenengoari entzutera eramaten ninduen. Baita ere, niretzat bertsotan jaio den bertsolari handienaren final eta bertsokak entzun eta gozatu izana, familiakoa izanda erraza ematen du, baina hainbertze bertsolari egonda, zaila izaten da familiakoa hainbeste mirestea eta berekin hainbeste gozatzea. Kasu honetan bertsotan gehiago gozatu dut berekin bere hitz eta istorioekin baino.

Eta nola ez bertsokideak, hasieran ezezagun ziren aunitz gaur egun lagun ditut: Irati Agesta, Bittori Elizalde, Malen Alzuart, Josu Sanjurjo, Maialen Belarra... Hasieran bakarrik Iker Gorosterrazu, Amaia Elizagoien eta Alazne Untxalo nituen ezagun bertso munduan, baina geroztik ehunka eta ehunka lagun egin ditut, betirako lagun handiak direnak.

Txapelketak ezagutzea eta jokatzeko ere eman dit bertsokak: hainbeste miresten dituzun hoiekin kantatzea, bizitzan inoiz pentsatuko ez nuen momentu eder horiek bizitzea haiekin.

Kotxean lanera, edo leku batetik bertzerara ere, bertsoa izaten dut lagun. Izan herriko saioak, txapelketak, plaza libreak edo aspaldiko saio eta txapelketak, Joxe Agirre, Lazkano, Xalbador... urte guzian entzuten ditut eta ez behin bakarrik. Azken finean nik uste bertsoa nere bizitzatik ez dela inoiz irtengo. Urte aunitz dira elkarrekin elkarbizitzen eta ez naiz inoiz nazkatuko, sobera maite duten gauza bat delako. Betiko izango dela uste dut.

Bittori, dantzak eta bertsokak dire zure bi afizio handienetakoak. Galdera honi erantzutea gustatuko litzaidake: zer ematen dizute bata eta zer besteak?

## Koplak

**Gabiriako bertsolaritza eta bertsolaritza Gabirian liburua aurkeztuko da ekainaren 15ean**

Eresti Oiarbidek eta Maialen Akizuk izen bereko ikerketa proiektua abiatu zuten orain urte batzuk, eta liburua argitaratu da orain. Bidean, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren laguntza izan dute, hala nola, bertan bilduta dauden dokumentu eta informazio antolatua baliatzeko, eta hala aitortu da liburuan bertan. Ekainaren 15ean izango da aurkezpena, Gabiriko Osinalde elkartearen, 12:00etan. Aurkezpenaz gain, herriko bertsolariak arituko dira kantuan, eta mokadutxo eta argazki emanaldia ere izango dira.

## Poto-Finixa



Begire nago begire...

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

**2026ko Arabako Bertsolari Txapelketa, prestaketetan**

Arabako Bertsozale Elkartea hasia da 2026ko Arabako Bertsolari Txapelketaren prestakuntza lanetan. Maiatzaren amaieran zabalduko da izen-ematea eta sailkatze fasea udazkenean egitea aurreikusten dute, urriaren hirugarren astetik aurrera. Txapelketa utarrilean aurkeztuko da eta martxoaren 28an jokatu da finala, Gasteizen.



Info + | **Lanku**  
www.lanku.eus

ZEHARKATU  
GAITUENA  
PERFORMATZEN

PUBLIZITATEA